

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatu Nagusiaren 334/2020 Foru Dekretua, urriaren 15ekoa, onesten duena Arabako Lurralde Historikoan materia organikoaren gaikako bilketa ezartzeko dirulaguntza lerro bat

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 26ko 51/2017 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa gaika biltzeko dirulaguntza lerro baterako oinarri arautzaileak onetsi ziren, bai eta laguntza horien 2017ko ekitaldiko deialdia ere.

Diputatu Nagusiaren otsailaren 19ko 78/2020 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa gaika biltzeko 2020ko ekitaldiko dirulaguntzaren deialdia onetsi zen.

Ekintza lagungarriak dira baliabide materialak erostea, sentsibilizazio kanpainak, eta erakunde eskatzaileez kanpoko aholkularitza teknikoak hondakin organikoen gaikako bilketaren ezarpena eta horren jarraipena egiteko moduari buruzko aholkularitza emateko.

Aurkezteko epea amaitu da eta hamahiru erakunde aurkeztu dituzte deialdiaren xederako dirulaguntzak jasotzeko eskaerak. Hurrengo atalean zehaztutakoaren arabera, hamahiru erakundeak onartu dira norgehiagoka araubiderako.

Bosgarren artikuluko (Aurkeztu beharreko agiriak) 2. eta 3. puntuetan azaldutakoa oinarri hartuta, nahitaezko agiriak eta/edo osagarriak eskatu zaizkie zortzi erakunderi, eta behar bezala eta epean erantzun dute.

Deialdi honetarako 90.000,00 euroko zenbatekoa onetsi da. Hasieran aurreikusitako zenbatekoa 125.000,00 eurokoa izan zen, baina COVID-19ak sortutako egoera dela-eta aurrekontua egokitu denez, laguntzetarako zenbatekoa adierazitako kopurura murriztu da.

Eskatzaile bakoitzari emango zaion dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70 izango da.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira, bi baldintzaren pean (oinarri arautzaileen 6. artikulua, 2. eta 3. apartatuak):

1. Kuadrilla bateko eskaera multzorako gehieneko aurrekontu zuzkidura honela aterako da: deialdian onartutako zenbatekoa, eskaera aurkeztu duen kuadrilla kopuruarekin zatituz. Beharrezkoa bada, eskaerak kuadrilla mailan hainbanatuko dira muga horretaraino. Baldintza hori ez da aplikatuko hurrengo b) apartatua aplikatzen denean.

Baldintza hori aplikatuta, 2020ko ekitaldiko arauari jarraituz, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, kuadrilla bakoitzeko, 15.000,00 euro da (90.000,00 euro zati 6 kuadrilla eskatzaile).

Hamahiru eskaeretatik, 5 kuadrillek egin dituzte, eta horietatik 4ri zuzenean aplikatzen zaie muga hori.

Bestalde, Arabako Lautadako Kuadrillako bi udalek, kuadrillaz beraz aparte, laguntzak eskatu dituzte. Halaber, Gorbeialdeko Kuadrillan 6 udalek egin dute eskaera. Eskaera bat baino gehiago dituzten bi kuadrilla horien kasuan, kuadrilla bakoitzeko erakundeen eskabide guztietarako laguntzak, hasiera batean, ez dira 15.000,00 eurotik gorakoak izango.

2. Diruz lagundu ahal diren laguntzen zenbateko osoa txikiagoa baldin bada aurrekontuan dagoen diru zenbatekoa baino, gaidikina proportzionalki banatuko da, eskaera egin duen eta dirulaguntza jasotzeko eskubidea duen erakunde bakoitzak jasotako puntuazioaren arabera;

ezin izango da inola ere gaintitu aurrean aipatzen den diruz lagundu ahal den gehieneko portzentajea (ehuneko 70). Gaindikina banatzen bada, ez da aplikatuko kuadrilla bakoitzeko gehieneko zuzkidura, a) letran aipatutakoa.

Balorazio Mahaiak aztertu ditu aurkeztutako eskaerak eta puntuazioa eman die zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera; honako hauek izan dira irizpideak eta banaketa:

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Jardueraren zehaztapan teknikoak	60
Eskatutako jardueren egokitasuna, proiektuak lortu nahi dituen helburuen aldean	20
Proiektuaren koherentzia orokorra	20
Guztira	100

Eskaera berean jarduketa baterako baino gehiagotarako laguntza eska daiteke. "Jardueraren zehaztapan teknikoak" izeneko atalean, gehienez ere 60 puntu lor daitezke, ondoko taulan jasotzen den moduan. 60 puntu horiek honela banatzen dira, eskatutako jardueren arabera:

AUKERA	LAGUNTZA JASOKO DUEN JARDUERA MOTA	JARDUEREN GEHIENKO PUNTUAZIOA
1. aukera	Baliabide materialak	25,00
	Sentsibilizazio kanpainak	25,00
	Kanpoko laguntza teknikoa	10,00
2. aukera	Baliabide materialak	30,00
	Sentsibilizazio kanpainak	30,00
3. aukera	Baliabide materialak	42,85
	Kanpoko laguntza teknikoa	17,15
4. aukera	Sentsibilizazio kanpainak	42,85
	Kanpoko laguntza teknikoa	17,15
5. aukera	Baliabide materialak	60,00
6. aukera	Sentsibilizazio kanpainak	60,00
7. aukera	Kanpoko laguntza teknikoa	60,00

Emandako puntuazioen justifikazioa I. eranskinean agertzen da, eta horren emaitza taula honetan laburbiltzen da:

ESKATZAILEA	PUNTUAK	ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK			EGOKITASUNA	KOHERENTZIA
		BALIABIDE MATERIALAK	KANPAINAK	LAGUNTZA TEKNIKOAK		
Zigoitiko Udala	95,00	42,85	—	17,15	15	20
Zuiako Udala	95,00	42,85	—	17,15	15	20
Aguraingo Udala	95,00	30	30	—	15	20
Añanako Kuadrilla	92,50	22,5	25	10	15	20
Aramaioko Udala	92,15	35	—	17,15	20	20
Burgeluko Udala	90,00	60	—	—	20	10
Aiarako Kuadrilla	90,00	20	22,5	10	20	17,5
Arabako Lautadako Kuadrilla	87,15	30	—	17,15	20	20
Urkabustaizko Udala	87,15	40	—	17,15	15	15
Legutioko Udala	85,00	55	—	—	15	15
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	85,00	50	—	—	20	15
Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla	80,00	30	—	15	15	20
Arratzua-Ubarrundiako Udala	70,00	40	—	—	15	15

Oinarri arauetan ezarritako baldintzen arabera, emandako puntuazioari erreparatuta adjudikatu dira laguntzak, kontuan izanik aurretik dirulaguntzaren gehieneko portzentajea (ehuneko 70) eta kuadrilla bakoitzeko gehieneko zuzkidura (15.000,00 euro).

Hona hemen kalkulu-prozesuan identifikatu diren kasuen azalpena:

a. Kuadrilla batzuei gehieneko dirulaguntza esleitu zaie (15.000,00 euro), eskatu duten diru kopuruari ehuneko 70 aplikatuta zenbateko handiagoa ateratzen delako.

Eskatzaile hauei aplikatu zaie: Guardia - Arabako Errioxa, Mendialdea eta Aiaraldea.

b. Beste kuadrilla batzuei ehuneko 70eko gehieneko dirulaguntza aplikatuta 15.000,00 eurotik beherako emaitza ateratzen da. Horrelakoei ehuneko 70 aplikatu zaie, eta 15.000,00 eurora arteko gerakina geroago banatzeko gorde da.

Añanako Kuadrillari aplikatzen zaio.

a. Añanako Kuadrillak 17.213,00 euroko aurrekontua aurkeztu du; 12.049,10 euro da dirulaguntzaren ehuneko 70 (kuadrilla bakoitzeko 15.000,00 euroko gehieneko zuzkidura baino gutxiago), eta 2.950,90 euroko gerakina dago baliagarri.

c. Gorbeialdeko Kuadrillako 6 udalen eskaeratarako, esleipen irizpide hau erabili da:

a. Lortutako puntuazioan oinarrituta, udal bakoitzari ehuneko 70eko dirulaguntza esleitu zaio hurrenez hurren, harik eta kuadrilla bakoitzeko 15.000,00 euroko gehieneko zuzkidura agortu arte.

b. Lehenengo eta behin, ehuneko 70 esleitu zaie Zigoitiko (3.157,55 euro), Zuiako (3.959,02 euro) eta Aramaioko (4.254,64 euro) udalei.

c. Esleipen horren ondoren, 15.000,00 eurotik 3.637,79 euro geratzen dira (15.000,00 euro - 3.157,55 euro - 3.959,02 euro - 4.254,64 euro), eta puntuazio hurrenkeraren arabera ematen zaio Urkabustaizko Udalari.

d. Horrela, agortuta dago, a priori, Gorbeialdeko Kuadrillarako gehieneko zuzkidura.

d. Arabako Lautadako Kuadrillako 2 udalen eta kuadrillaren beraren eskaerarako, hauxe izan da esleipen irizpidea:

a. Lortutako puntuazioaren arabera, puntuazio handiena lortu duen eskabideari, Aguraingo Udalarenari, gehienez 15.000,00 euro esleitu zaizkio, eskatutako zenbatekoaren ehuneko 70 handiagoa izango litzatekeelako.

– Lehenengo banaketa amaituta, 6.4 artikulua aplikatuz, 2.950,90 euroko gerakina dagoela ikusirik, bidezkoa da hura birbanatzea lortutako puntuazioaren arabera eta, baldintza gisa, dirulaguntzaren ehuneko 70eko gehieneko muga bakarrik kontuan hartuta. Honela esleitzen da:

1. Aguraingo Udalari:

- Lehenengo banaketa: 15.000,00 euro.
- Berresleitutako gerakina: 2.950,90 euro.
- Guztira: 17.950,90 euro.

ESKATZAILEA	PUNTUAK	DIRU LAGUNTZA JASOKO DUEN AURREKONTUA	EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA	OBSERVACIONES
Zigoitiko Udala	95,00	4.510,78 euro	3.157,55 euro	70%
Zuiako Udala	95,00	5.655,75 euro	3.959,02 euro	70%
Aguraingo Udala	95,00	33.889,36 euro	17.950,90 euro	52,97% Bigarren banaketan gerakina esleitu zaio
Añanako Kuadrilla	92,50	17.213,00 euro	12.049,10 euro	70%
Aramaioko Udala	92,15	6.065,20 euro	4.245,64 euro	70%
Burgeluko Udala	90,00	19.676,23 euro	0,00 euro	Agortu egin da kuadrillako gehieneko zuzkidura
Aiarako Kuadrilla	90,00	52.361,08 euro	15.000,00 euro	28,65% Kuadrillako gehieneko muga
Arabako Lautadako Kuadrilla	87,15	80.932,00 euro	0,00 euro	Agortu egin da kuadrillako gehieneko zuzkidura
Urkabustaizko Udala	87,15	15.451,05 euro	3.637,79 euro	23,54% Lehenengo banaketan Kuadrillako gerakina esleitu zaio
Legutioko Udala	85,00	14.238,68 euro	0,00 euro	Agortu egin da kuadrillako gehieneko zuzkidura
Guardiako-Arabako Errioxako Kuadrilla	85,00	22.360,07 euro	15.000,00 euro	67,08% Kuadrillako gehieneko muga
Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla	80,00	30.146,18 euro	15.000,00 euro	49,76% Kuadrillako gehieneko muga
Arratzua-Ubarrundiako Udala	70,00	59.846,60 euro	0,00 euro	Agortu egin da kuadrillako gehieneko zuzkidura
ZENBATEKOA GUZTIRA		362.345,98 euro	90.000,00 euro	

Aurrekoari atxikiz, proposamen hau egiten da:

1. Erakunde eskatzaileei eman eta jakinaraztea hartutako ebazpena.
2. Dirulaguntza ukatzea Burgelu, Legutio eta Arratzua-Ubarrundiako udalei eta Arabako Lautadako Kuadrillari, kuadrilla bakoitzeko ezarritako gehieneko muga eta aurrekontuko esleipena agortu dutelako.
3. Dirulaguntza lerro hau arautzen duten oinarrien 9. artikuluan (Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea) ezarritakoaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak.
4. Deialdi honetako dirulaguntzak ordaintzeko eskaerak 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztuko dira.

5. Erakundeek diruz lagundutako jarduketak egin behar dituzte 2020ko abenduaren 31 baino lehen. Deialdi honetan 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako jarduketek jaso dezakete dirulaguntza.

6. Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako partiden kargura ordainduko dira 90.000,00 euroko dirulaguntzak, banaketa honen arabera:

28.999,56 euro, 60207.6500.4629001 "Toki erakundeentzako dirulaguntza organikoa" aurrekontu partidaren kargura,

61.000,44 euro, 60207.6500.7629001 "Dirulaguntza toki erakundeentzat hondakinak gaika biltzeko. HHP 2017-2030" aurrekontu partidaren kargura,

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 19. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gutxitzea hasieran onetsitako deialdiaren zenbatekoa, COVID-19ak sortutako egoera dela eta aurrekontua doitu egin behar izan delako; deialdi honetarako onetsi den zenbatekoa 90.000,00 euro da.

Bigarrena. Adierazitako laguntzak ematea erakunde hauei, dagozkien ekintzak gauzatzeko:

ESKATZAILEA	PUNTUAK	DIRU LAGUNTZA JASOKO DUEN AURREKONTUA	EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA	
			7. KAPITULUA	4. KAPITULUA
Zigoitiko Udala	95	4.510,78 euro	457,38 euro (Xedapen erref. 20.1.20 -215/498/1)	2.700,17 euro (Xedapen erref. 20.1.20-215/499/1)
Zuiako Udala	95	5.655,75 euro	1.463,61 euro (Xedapen erref. 20.1.20 -215/498/2)	2.495,41 euro (Xedapen erref. 20.1.20-215/499/2)
Aguraingo Udala	95	33.889,36 euro	14.954,76 euro (Xedapen erref. 20.1.20 -215/498/3)	2.996,14 euro (Xedapen erref. 20.1.20-215/499/3)
Añanako Kuadrilla	92,5	17.213,00 euro	8.917,30 euro (Xedapen erref. 20.1.20 -215/498/4)	3.131,80 euro (Xedapen erref. 20.1.20-215/499/4)
Aramaioko Udala	92,15	6.065,20 euro	1.482,25 euro (Xedapen erref. 20.1.20 -215/498/5)	2.763,39 euro (Xedapen erref. 20.1.20-215/499/5)
Aiarako Kuadrilla	90	52.361,08 euro	11.707,00 euro (Xedapen erref. 20.1.20 -215/498/6)	3.293,00 euro (Xedapen erref. 20.1.20-215/499/6)
Urkabustaizko Udala	87,15	15.451,05 euro	1.641,63 euro (Xedapen erref. 20.1.20 -215/498/7)	1.996,16 euro (Xedapen erref. 20.1.20-215/499/7)
Guardiako-Arabako Errioxako Kuadrilla	85	22.360,07 euro	15.000,00 euro (Xedapen erref. 20.1.20 -215/498/8)	0,00 euro
Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla	80	30.146,18 euro	5.376,51 euro (Xedapen erref. 20.1.20 -215/498/9)	9.623,49 euro (Xedapen erref. 20.1.20-215/499/8)
ZENBATEKOA GUZTIRA		187.652,47 euro	61.000,44 euro	28.999,56 euro

Hirugarrena. Dirulaguntza ukatzea Burgelu, Legutio eta Arratzua-Ubarrundiako udalei eta Arabako Lautadako Kuadrillari, kuadrilla bakoitzeko ezarritako gehieneko muga eta aurrekontuko esleipena agortu dutelako.

Laugarrena. Dirulaguntza lerro hau arautzen duten oinarrien 9. artikuluan (Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea) ezarritakoaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak.

Bosgarrena. Deialdi honetako dirulaguntzak ordaintzeko eskaerak 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztuko dira.

Seigarrena. Erakundeek diruz lagundutako jarduketak egin behar dituzte 2020ko abenduaren 31 baino lehen. Deialdi honetan 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako jarduketek jaso dezakete dirulaguntza.

Zazpigarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako partiden kargura ordainduko dira 90.000,00 euroko dirulaguntzak, banaketa honen arabera:

28.999,56 euro, 60207.6500.4629001 "Toki erakundeentzako dirulaguntza organikoa" aurrekontu partidaren kargura,

61.000,44 euro, 60207.6500.7629001 "Dirulaguntza toki erakundeentzat hondakinak gaika biltzeko. HHP 2017-2030" aurrekontu partidaren kargura.

Zortzigarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Bederatzigarrena. Dekretu hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO